

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

III. PLAN ESTRATEGIKOA 2026-2031



**BORTZIRIETAKO
EUSKARA**
MANKOMUNITATEA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AURKIBIDEA

Dokumentu honetan biltzen da Bortzirietako Euskara Zerbitzuak 2026-2031 aldian eskualdean euskara biziberritzeko garatuko duen plan estrategikoa.

Honako hau III. plan estrategikoa da, 2026-2031 urteetan garatuko dena. Bistan denez, aitzinekoekin alderatuta, arnas luzeagokoa da oraingo hau. Aitzineko planetan proposatu diren lau urteko zikloak laburregi suertatu direla iritzita erabaki da hurrengo hau garatzeko sei urteko tarte hartzea.

Lehen bi plan estrategikoak Bortzirietako Euskara Mankomunitateak garatu ditu, eta azken hau, berriz, mankomunitate horrek diseinatu badu ere, 2026tik aitzinera abian jarriko den Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen baitan kokatuko den Euskara Zerbitzuak garatuko du.

Egituraketa aldaketa handia gertatuko da eskualdeko zerbitzuetan epe laburrean. Aldaketa horrekin zerikusia duten jarduerak jaso dira plan honetan, batez ere hasierako fasean, euskara biziberritzeko asmoen garapenean izan dezaketen eragina denboran eta baliabideei dagokionez ahalik eta egokien neurtzeko eta aurreikusteko.

Plana osatzeko eta bertan biltzen diren ekintzak proposatzeko hiru dira kontuan hartutako oinarriak:

- ▶ Bortzirietako herritarrekin eta eragileekin egin den parte hartze prozesua: online galdegia, bertatik bertarako saioak eta elkarrizketak egin dira hurrengo urteetan eskualdean euskara biziberritzeko landu behar direnildoak, ekimenak eta ideiak jasotzeko. Horiek guztiak jaso dira plan honetan.
- ▶ AROA marko estrategikoa: Eusko Jaurlaritzak datorren hamarraldian euskara indarbertzen jarraitzeko onartu duen markoa da, eta helburu nagusia du "gizarteak azken urteetan izan dituen aldaketei erantzun eta gaur egungo testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua erakitzeko". Markoa eskaintzeaz gainera, EAEko tokiko administrazioentzako plana egiteko metodologia, plan eredia eta ekintza batera bat eskaintzen ditu. UEMAk bere udalerri guztietako planak egiteko darabilen markoa da eta, beraz, egoki ikusi da hori bera erabiltzea Bortzirietakoa diseinatzeko ere.

- Lehengo planetik datozen lan ildo, helburu eta ekintzak ere jasotzen dira, euskara zerbitzuak bere kabuz edota bertze eragileekin elkarlanean garatzen dituenak eta, beren garrantziagatik, hurrengo urteetan ere jarraipena izanen dutenak.

Bertzalde, dokumentu batean planik anbiziotsuena jasota ere, alferrikakoa izanen da, baldin eta hori garatzeko ez badira behar diren baliabide pertsonalak nahiz materialak eskura jartzen. Baina horrez gain, proposatzen diren helburuen eta ekintzen garapenerako eta, neurri handi batean, baita arrakastarako ere, funtsezkoena izanen da eskualdeko eragileen arteko elkarlana, hau ez dadin izan Bortzirietako Euskara Zerbitzuak bere kabuz landuko duen plana. Mota guzietako elkarlana da garrantzitsua, euskalgintzako nahiz bertzelako eragileekin eginen dena, instituzioekin nahiz herrigintzako erakundeekin, era guzietako kolektiboekin nahiz norbana-koekin.

Eskualdetik kanpoko eragileekin elkarlanean aritzea ere beharrezkoa da. Elkarlan horretan eragile aunitz aipa daitezke, baina plan honen garapenerako bi izanen dira funtsezkoak. Batetik, Nafarroako euskara teknikarien sarea, planean aurreikusten diren hainbat ekintza eta lan ildo espresuki elkarlanerako sortutako erakunde horretatik bideratuko baitira. Bertzetik, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea, bortz udalak bertako kide izanik, bi mankomunitateon eta udalen arteko elkarlana estua baita.

Euskararen egoerari eta geroari buruz argitaratu berri diren ikerketek eta datuek hizkuntza politikan eraldaketa bat egitearen beharra erakusten dute, eta horretarako diagnostikoak, plan egokiak, baliabideak eta eragileen arteko elkarlana ezinbertzeko osagaiak dira.

Bortziriak, 2025eko urria

Euskara teknikariak

Urko Ikardo Enparan

Patri Arburua Etxeberria

Aitzineko bi plan estrategikoak diseinatzeko egin bezala, oraingoan ere parte hartze prozesua egin du mankomunitateak 2026-2031 aldirako plana herritar eta eragileen iritzi eta ekarpene-kin osatzeko. Prozesua 2025eko urtarrilean hasi zen eta irailean bukatu.

Oraingoan ere Elhuyar Aholkularitzak lagundu dio mankomunitateari prozesu hau antolatzen eta garatzen. Parte hartze prozesu osoa laburbiltzen duen txostena egina du aholkularitza en-presa horrek, eta, hortaz, hemen dokumentu horretan jasotakoen zertzelada batzuk aipatuko dira.

2.1) PROZESUAREN HELBURUAK

Hauek izan dira prozesuaren helburuak:

2.1. Helburu orokorra

Bortzirietan euskara indarberritzeko, herritarrek aktibatze eta euskararen erabilera areago-tzeko Euskararen Plan Estrategikoa (2026-2031) diseinatzea, eskualdeko herritar eta eragileekin batera.

2.2. Helburu zehatzak

- ▶ Bortzirietako Mankomunitateko arduradun politikoek eta teknikoek euskararen normali-zazioan duten arduraz jabetzea, euskara sustatzeko eta euskaldunok ahalduntzeko gober-nantza eredua adostea.
- ▶ Aurreko bosturtekoan indarrean izan den planaren balantzea egitea eta ondorioak atera-tzea: esparru estrategikoetan garatu diren ekintzen eragina baloratzea, ongi egindakoak identifikatzea eta hutsuneak edo hobetzekoak atzematea.
- ▶ Eragileek euskararen egungo egoeraren diagnostikoa osatzea eta adostea.
- ▶ Hainbat eremutako eragileek nahiz interesa duten herritarrek planaren diseinuan parte hartzea.
- ▶ Diseinuan parte hartu dutenek plana garatzeko antolamenduaren inguruko hausnarketa kritikoa egitea.

2.2) LAN PROZEDURA ETA EMAITZAK

Lehen urratsa izan zen prozesu osoa gidatuko zuen talde eragilea osatzea. Mankomunitateko lehendakariak, bi teknikariek eta Elhuyarreko aholkulariek parte hartu dute talde horretan.

Hiru fase izan ditu prozesuak:

1.- Aurrelanak eta diagnostikoa

Prozesua abiatzeko aurreko planaren ebaluazioa eta egungo egoeraren diagnostikoa biltzen dituzten txostenak landu ziren. Horiez gain, parte hartzeko lehen ekintza antolatu zen: herritar guziei zuzendutako online galdetegia prestatu eta zabaldu zen, haien ustez euskarak Bortzirietan dituen egoera eta erronkei buruz. Guzira 161 herritar eta eragilek erantzun zioten galdetegiari.

2.- Gogoeta eta sortze fasea

Fase honetan bi saio egin ziren bertatik bertarakoak. Martxoaren 14an Bortzirietako entitateetako arduradun tekniko eta politikoeekin hiru orduko saioa egin zen, haien rolari buruzko gogoeta egiteko eta hurrengo urteetarako erronka nagusiak lantzeko. Guzira 19 lagun elkartu ziren, tartean bortz alkateak, euskara zinegotziak, zenbait udal idazkari eta teknikari zirela.

Bertze saioa Etxalarren egin zen, apirilaren 5ean, herritar eta eragileekin. Saio horretan ere 19 lagunek parte hartu zuten, eta etorkizuneko erronkak eta lan ildoak jorratu zituzten.

Ondoren bi saio horietara joateko aukerarik izan ez zuten hainbat herritar eta eragilerekin bilerak egin ziren. Zazpi bilera egin ziren, honako eragile eta kolektibo hauekin (guzira 17 lagun): H.eus Mahaian parte hartzen duten ikastetxeetako ordezkariak, Berako hiru euskaltzale, Lesakako hiru euskaltzale, Berako enpresa bateko arduraduna, sindikatu bateko eskualdeko arduraduna, bi herritar migratzaile, euskal hiztun berri bat.

3.- Planaren zirriborroa aurkeztea, osatzea eta onartzea

Mankomunitateko teknikariek planaren zirriborroa osatu zuten, Elhuyarren aholkularitzarekin. Zirriborroa prestatu ondotik, urriaren 4an bertze saio bat egin zen herritar eta eragileekin Igan-tzin, zirriborro hori aurkezteaz gainera, bertan proposatzen diren ekintzen arduradunak izendatzeko. Saio horretan 21 lagunek parte hartu zuten.

Azken urratsa izan zen mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak plana onartzea. Urriaren 29ko bileran eman zion onarpena.

Parte hartze prozesu hau Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du.

Errealitatea eraldatzea xede duen edozein esku hartzek egoeraren analisia izan behar du abiapuntutzat. Bortzirietako egoera soziolinguistikoa deskribatu eta ulertzeko honako iturri nagusi hauek erabili ditugu: *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa Bortzirietan txostena*, *Bortzirietako bilakaera soziolinguistikoa aztergai Euskara Mankomunitatearen plan estrategiko berriaren atarian artikulua*, eta UEMaren koaderno demolinguistikoak eta Proiektzio demolinguistikoa.

3.1) Euskararen bilakaera soziolinguistikoa Bortzirietan txostena

Bortzirietako bilakaera soziolinguistikoaren azterketa mankomunitatearen [webgunean](#) kontsultatzen ahal da, eta 2000tik 2021era urte bitarteko epealdia du aztergai. Honako gai hauek lantzen ditu: biztanleriari buruzko datu orokorrak, jatorri aniztasuna eta immigrazioa, euskararen ezagutza, euskararen jarraipena, euskararen erabilera eta euskararen sustapenari buruzko jarrerak.

Euskararen ezagutzari buruzko azkeneko datuak ekarri ditugu hona:

EUSKARAREN EZAGUTZA HERRIZ HERRI ETA BORTZIRIAK 2021						
	ARANTZA	BERA	ETXALAR	IGANTZI	LESAKA	GUZTIRA
Euskaldunak %	547	2.521	678	498	2.131	6.375
	91,9	67,1	80,4	85,3	78,3	75,0
Ia-euskaldunak %	24	490	57	37	289	897
	4,0	13,0	6,8	6,3	10,6	10,6
Erdaldunak %	24	745	108	49	301	1.227
	4,0	19,8	12,8	8,4	11,1	14,4
GUZTIRA	595	3.756	843	584	2.721	8.499

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NASTAT), BEMek landuak. 2 urtetik gorako biztanleak.



2021eko datuen arabera Bortzirietako herritarren hiru laurden euskaldunak dira. Eskualde bezala, hirugarren gune soziolinguistikoan kokatzen dira Bortziria (euskaldunen zenbatekoa %50 eta % 79 artekoa).

Herrien artean badira alde nabarmenak euskararen ezagutzari dagokionez: Arantzak, Igantzik eta Etxalarrek % 79tik gorako langa gainditzen dute, beraz laugarren gune soziolinguistikoan kokatzen dira (euskaldunen zenbatekoa %79tik goiti), Lesaka hurbil dago atalase horretatik, eta Bera da Bortzirietako batz bertzekotik beheiti gelditzen den bakarra. Aipagarria da herririk handiena dela erdaldunena, jarduera eta zerbitzu gehien dituen, eta hori bada zerbaiten adierazgarri. Euskal Herrian orokorrean gertatzen den fenomeno erreplikatu da hemen, zenbat eta hiri handi eta populatuagoa, orduan eta txikiagoa euskaldunen dentsitatea.

3.2) Bortzirietako bilakaera soziolinguistikoa aztergai Euskara Mankomunitatearen plan estrategiko berriaren atarian

Bortzirietako egoera soziolinguistikoa deskribatu eta aztertzen dira [artikulu honetan](#), Euskararen bilakaera soziolinguistikoa Bortzirietan txostena oinarritzat hartuta. Akabailan eta ondorio gisa, eskura ditugun datuen araberrako erronken zerrenda proposatzen da:

- ▶ Azken bi hamarkadetan Euskal Herriitik kanpoko jatorria duten herritar aunitz etorri dira gurea bizitzera, eta herritar horien artean askotariko jatorri, kultura eta hizkuntzak ditugu. Udalerrir euskaldun edota euskararen arnasegune garen aldetik, herritar horiei harrera egitea eta euskaraz eta euskal kulturaz jabe daitezen lehentasuna izanen da.
- ▶ Azken bi hamarkadak kontuan hartzen baditugu, euskara lehen hizkuntza izan duten herritarren zenbatekoak gibelera egin du. Euskaldun belaunaldi berriak sortzea estrategiko izaten segituko du. Euskara lehen hizkuntzetako bat izanen ez duten herritarrak gero eta gehiago izanen direla aurreikusten dugu. Horregatik, hiztun eta familia tipologia horiei egokitutako esku hartzeak beharko ditugu.
- ▶ Datozen urteotako erronka izanen da etorri berriak eta euren seme-alabak masiboki D erduan matrikulatzea.
- ▶ Horrez gain, helduen euskalduntzea indartzea ere funtsezkoa izanen da, eta, bereziki, Euskal Herriitik kanpoko jatorria duten herritarrek maila ertainetara (B1-B2) eta mintzapraktikara jauzi egitea.
- ▶ Euskararen ezagutza guziz orokortzea izanen dugu ipar, baina zer hiztun mota dugu ortzi-mugan? Hizkuntza tipologiaren araberrako neurriak beharko ditugu, euskal hiztunek euskaraz errazago eta erosoago egin dezaten, eta hiztun aktibo bilakatu daitezen. Horretarako funtsezkoak izanen dira, aisialdia, kultura eta kirola, baita euskarazko adierazkortasuna sustatzeko berriarazko jarduerak ere.

- Euskararen erabilera hedatzeko eta arlo guztietan arau sozial bilakatu dadin, herri handien eta helduen adin talde zabal horretan eragin beharko dugu nagusiki, jendetsuena eta eragin zein botere sozial handiena duena izaki. Hartara, honako eragin guneak izanen ditugu lehentasunezko: arlo sozioekonomikoa eta zerbitzuen eskaintza. Izan ere, euskarak nekez izanen du nagusigo edo garapen osorik lantoki eta zerbitzuetatik at gelditzen bada.

Beraz, eta laburbilduz, honako hauek izanen ditugu lehentasun: belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa, etorri berriak euskal kulturaz eta euskaraz jabetzea, euskal hiztunen euskarazko nagusitasuna, eta arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera hedatzea. Noski izanen dira bertze lehentasun batzuk, hedabideekin eta mundu digitalarekin zerikusia dutenak kasu, baina azterketa honetatik kanpo gelditu dira.


3.3) UEMaren koaderno demolinguistikoak eta proiektzio demolinguistikoa

3.3.1. Koaderno demolinguistikoak

Koaderno demolinguistikoek oinarritzko adierazle sorta bat eskaintzen dute UEMako herrien hizkuntza egoera ezagutzeko. Honako gai edo adierazle hauek lantzen dira koadernoetan: oinarritzko kokapen demolinguistikoa (erabileran oinarritua), ahozko hizkuntza gaitasuna (multzo metatuak euskararen ikuspegitik eta gaztelaniaren ikuspegitik), euskararen ezagutza (bilakaera eta adina), erabilera (etxeko hizkuntza), hizkuntza bilakaera eta belaunaldi berrien sozializazioa.

Gaitasunaren aldagaia bertze modu batera multzokatzea da berrikuntzetako bat, horrek informazio adierazgarria ematen digu hiztunek hizkuntza bakoitza erabiltzeko duten erraztasunari buruz; hizkuntza bat erabiltzeko erraztasunak (elebazarren kasuan ezinbertzean) neurri handian baldintzatzen du hizkuntza hautua eta erabilera.

**AHOZKO HIZKUNTZA GAITASUNA 2021.
16 URTETIK GOITIKO HIZTUNAK**



3.3.2. Proiekzio demolinguistikoa

UEMAren enkarguz Siadecok Hego Euskal Herriko etorkizun demolinguistikoa irudikatzen duen ikerketa egin du. Orain arteko joera demolinguistikoari eusten bazaio eta bertzelako neurriak hartu ezean, 2036rako euskararen nagusitasun eremuan (etxeko erabilera % 60tik goiti) soilik Gipuzkoako 12 herri eta Nafarroako 9 geldituko dira.

LABURPENA

4.1) SARRERA

1.- Nahi estrategikoa

Bortzirietan euskararen nagusitasun eremuak babestu eta arnasmune izaera indartzea, euskararen biziberritzean aitzinera egitea, herritarrak ahalduentzea eta euskararen aldeko jarrera eta gogo-nahiak suspertzea, eta euskararen erabilera orokortu eta areagotzea estrategikotzat jotzen diren arloetan, kulturen, aisialdian eta kirolean zein arlo sozioekonomikoan, gainerako udal zerbitzuekin eta bertzelako erakundeekin elkarlanean, eskualdeko eragileak saretu eta aktibatzearekin batera.

2.- Misioa

Bortzirietako eragile publiko, sozial zein pribatu guzientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren sei urteotarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduentzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko, eta Bortziria euskaldun, justu, ekitatibo eta inklusiboa eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldean ebaluatu eta egokituko da plana, metodologia parte hartzaile eta irekia baliatuz, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.

3.- Ikuspegia

Planaren ikuspegi nagusia, datozen sei urteei begira, honako hau da:

- ▶ Bortzirietan euskararen transmisioa bermatuko da.
- ▶ Bortzirietan gizarte esparru guzietan euskal hiztun aktibo gehiago izanen ditugu.
- ▶ Euskaratik urrun dauden herritarrak zein gurera ailegatzen ari direnak euskarara hurbiltzeko baldintzak sortuko dira.
- ▶ Behar handienak dituzten herritarrek behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak izateaz gain, euskara haiena ere badela sentituko dute.
- ▶ Euskaraz bizitzeko aukerak are zabalagoak izanen dira; euskarak babesgune gehiago izanen ditu eskualdean eta arnasmune izaera indartuko da.



- ▶ Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa izanen dute.
- ▶ Euskararen ezagutza areagotuko da, ia herritar guziek jakinen dute.
- ▶ Bortzirietako eskualdea izanen da biziberritze plan honetako oinarrizko unitatea edo esparru geografikoa, herri zehatzetan zenbait arlo eta lan ildo indartzeko saiakerak alde batera utzi gabe.

4.- Zehar lerroko gaiak

4.1. Aktibazioa eta sentsibilizazioa:

Planak berariaz landu beharreko arlo modura jasotzen ditu aktibazioa eta sentsibilizazioa. Izan ere, datozen urteotan garrantzi berezia emanen zaio herritarren euskararen aldeko jarrerak eta motibazioak (kontzientzia) astintzeari, baina horrez gain biak zehar lerro modura presente egonen dira ildo eta arlo guzietan. Hizkuntza biziberritzeko eraldaketa prozesu kolektibo bat behar da, eta prozesu horretan norbanakoek, administrazioek, gizarte eragileek edota enpresek modu aktibo eta kontzientean parte hartu behar dute. Alegia, bilatzen dena da hiztun eta eragile bakoitza norbere eremuan euskara ikasteko, erabiltzeko eta aldarrikatzeko aktibatzea eta ahalduntzea.

▶ Kultura eta hizkuntza aniztasuna aberastasun iturri:

Immigrazioaren fenomenoak prozesu historiko gisa harremanetan dago herrialdeen arteko indar harreman desorekatuarekin, antzinako kolonizazio prozesuekin eta horien jarraipena diren gaur egungo mundu ordenuarekin eta neokolonialismoarekin. Migrazio prozesu berriek ekarri dute jatorri eta kultur aniztasunaren herritarren etorrera, horietako aunitz herrialde pobretuetatik. Immigrazioko jatorria duten edota etorri berri diren herritar horien gehiengoa mailaketa sozialaren behealdean kokatzen da, eta maiz arrazakeria eta bazterketa pairatzen dituzte. Gure planean ikuspegi dekoloniala txertatzeko apustua egiten dugu, menderakuntza prozesuen ulermenetik eta gizarte justu eta orekatuago baten aldeko konpromisotik, eta euskaldunena hizkuntza eta kultura azpiratua (izan) denez gero, konplizitateak josteko. Hartara, geure egiten dugu bazterkeriaren eta arrazakeriaren aurkako borroka, eta immigrazioko jatorria duten herritarren inklusio harmoniatsua izanen dugu xede, kulturartekotasuna baliotzat hartuta, komunitate euskaldun izaerari eutsita, eta kultura zein hizkuntza aniztasuna kohesio eta harrotasun iturri bilakatuta.

Berariaz landuko den arloa izateaz gainera, aniztasunarena zehar lerrotzat jotzen da, gizarte bizitzaren eta normalizazio planak jasotzen dituen ildo eta arlo guzietan aintzat hartzeko de-lakoan.

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

Komunikazioari dagokionez, zehazki honako neurri hauek hartuko dira planean proposatzen diren jarduerak garatzerakoan:

- ▶ Euskarrietan agertzen diren pertsonen nolakotasuna (jatorria, pertsona arrazializatua, etnia edo dena delakoa) kontuan hartuko da gizartearen islarik ahalik eta doiena izan dadin.
- ▶ Euskarrietan erabiltzen diren hizkuntzak eta hizkuntza motak (minorizatuak vs. ez-minorizatuak) hautatzerakoan eremu horretan gehien ezagutzen direnak aintzat hartuko dira.
- ▶ Euskarrietan agertzen diren pertsonen estetika (janzkera, orrazkera...) zainduko da estereotipoetatik aldentzeko.
- ▶ Euskarrietan agertzen diren herriak eta eremuak zainduko dira hartzaileak ez dezan sentitu euskarri hori ez dagoela berari zuzendua.
- ▶ Euskararen tokia vs. bertze hizkuntza batzuen tokia. Beti lehenetsiko da euskara gure euskarrietan, eta, ahal bada, ez da euskarri elebakarrik eginen, alegia bertze hizkuntza batean euskarri bat zabaltzen denean, euskara ondoan azalduko da beti.

▶ Jasangarritasuna

Jasangarria ez den gizarte eredu batean bizi gara: egungo garapen ereduari ezin izanen zaio denboran mugarik gabe eutsi, egungo sistema ekonomikoa eta oreka ekologikoa bateraezina baitira.

Mankomunitateak, erakunde publikoa den heinean, iraunkorrak ez diren garapen eskemak saihestu behar ditu, eta bere jarduerak ahalik eta ingurumen inpaktu txikiena izan dezan lan egin behar du. Hortaz, ekintza guzietan ingurumena babestea eta tokiko baliabideak modu iraunkorrean kudeatzea aintzat hartuko dira.

Horiek kontuan hartuta, honako irizpide hauek erabiliko dira planaren garapenean:

- ▶ Euskarri fisikoen materialak eta nolakotasuna. Material birziklatuak lehenetsiko dira.
- ▶ Materialak banatzeko ahalik eta energia gutxien erabiltzen duten bideak eta moduak hautatuko dira.
- ▶ Egoitza berriaren kokapena erabakitzeke eta bilerak egiterakoan, lehenetsiko dira teknikari, ordezkari, herritar eta eragileei kilometro gutien eragiten dien kokapena, guzientzako irizgarritasuna bermatuz eta betiere herri guzietan zerbitzu eman eta jarduerak antolatzearen irizpidea kaltetu gabe. Halaber, gaiek ahalbidetzen dutenean, bilera telematikoak hobetsiko dira.

→

► Genero berdintasuna

Gauza jakina da eredu patriarkala nagusi den gizarte batean bizi garela, emakumeen gaitasunak eta eskubideak mugatzen dituen ereduan. Edozein erakunde eta entitatek, are gehiago erakunde publikoek, genero berdintasunaren alde egin behar dute, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bizitzako esparru guzietan lortzeko helburuarekin. Hizkuntza normalizazioaren esparruak bere egin behar du helburu hori, eta aintzat hartu bere analisi, jardun eta ebaluazio guzietan. Zehar lerro hau garatzeko euskara zerbitzua berdintasun zerbitzuarekin elkarlanean arituko da.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak 2025eko apirilaren 2ko bileran Bortzirietako Berdintasun Plana onartu zuen, baita genero indarkeriaren kontrako protokoloa ere. Bi dokumentu horietan jasotakoak aintzat hartuko ditu plan honetan aurreikusten diren helburu, ildo eta ekintzen garapenean.

Horiek horrela, planaren garapenean irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza inklusiboa erabiliko da, eta sexismoaz gain, bertze diskriminazio ardatzek hizkuntzan uzten dituzten aztarnak saihestuko dira, hala nola, heterosexismoak, etnozentrismoak, arrazakeriak edota kapazitismoak.
- Euskarrietako irudietan agertzen diren pertsonen genero oreka zainduko da, irudi horiek ez daitezen androzentrikoak eta sexistak izan, eta emakumeen ikusgarritasuna sustatuko da irudi estereotipatuetatik aldenduta.

5.- Terminologia

Planaren irakurketa eta ulermena errazteko aproposa iruditu zaigu erabilitako terminologiari buruzko argipena egitea. Honako eskema edo banaketa erabili dugu:

Ildo estrategikoak: Plan honen multzo, ardatz edo eragin eremu nagusiak dira, AROA ereduan erabiltzen diren ardatzekin bateragarriak, baina gure interesen arabera eta errealtatera egokitu. Ildo bakoitzari helburu zehatz bat esleitu diogu. Gure kasuan, honako 7 hauek dira:

1. Haur eta gaztetxoek sozializazioa (0-16).
2. Ezagutza/gaitasuna.
3. Erabilera/elkarreragina.
4. Jarrera/motibazioak.



5. Gobernantza eta antolaketa.

6. Komunikazioa.

7. Ikerketa/sistematizazioa.

Arloak: Ildo estrategikoen barne arloak ditugu, eragin eremu edo esparru zehatzagoak (21). Arlo bakoitzari helburu zehatz bat esleitu diogu.

Ekimenak: Ekintza multzoak edo eragiteko norabide batzuk biltzen dira ekimenetan. Arlo bategan lantzen diren aspektu ezberdinak bereizteko balio dute (54).

Ekintzak: Planaren muina dira eta eraldaketa helburuak lortzeko jarduera zehatzak. Planean aurreikusi diren helburuak lortzeko zer egingen dugun adierazten dute modu laburrean (201).

4.2) PLANAREN HELBURUAK

1.- Helburu orokorra

Bortzirietan euskararen nagusitasun eremuak babestu eta hedatzea (arnasgune izaera indartzea), herritarren euskararen aldeko jarrerak eta motibazioak aktibatu eta astintzea, eta immigrazioko jatorria duten herritarren integrazio linguistiko eta kulturala laguntzea.

2.- Helburu zehatzak

Jarraian, ildo estrategiko bakoitzari dagokion helburu zehatza definitu dugu.

1. Bortzirietako haur-gaztetxo guzi-guziek (0-16 urte) euskara ikasteko eta erabiltzeko aukera izanen dutela bermatzea, bereziki zainduta hizkuntza etxean jasotzen ez dutenen kasuan hezkuntza bidez eta hurbileko komunitatean euskara bereganatu eta euskaraz bizitzeko aukera izanen dutela.
2. Euskara ez dakiten 16 urtetik goitiko herritarren artean ikasteko nahia eta motibazioa piztea eta elikatzea, ikasketa prozesua abiatu, sendotu eta euskara erabiltzeko aukera izan dezaten, eta herritar guziei euskara ikasi eta hobetzeko ikastaro eta dirulaguntzak eskaintzea.
3. Gizarte bizitzaren arlo guzietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea eta bermatzea, bereziki administrazioan, arlo sozioekonomikoan, eta aisialdian, kirolean zein kulturean, euskararentzat nagusitasun eta babestoki izanen diren gizarte eremuak bilakatu daitezen.

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

4. Ekintzara eta eraldaketara bideratutako euskararen aldeko jarrerak eta motibazioak aktibatu eta astintzea, biziberritzearen aldeko olatu berriaren parte izanen direnak, eta etorri berrien zein immigrazioko jatorria duten herritarren integrazio linguistiko eta kulturala laguntzea, euskara eta kultura aniztasuna ardatz dituen integrazio inklusibo eta harmoniatsua ortzizumugan.
5. Mankomunitate bakarraren sorrerak dakarren antolaketa berrian euskara arloak eskumen eta baliabide aski izatea, baita erdiguneko kokapena ere, lidergoa eta zehar lerroko eragina bermatzeko; eta gainerako erakunde publikoekin, eragileekin eta herritarrekin etengabeko elkarlanean aritzea eta gizarte parte hartzea sustatzea oinarri duen gobernantza eredua praktikara eramatea.
6. Bere eragiteko ahalmena eta irismena handituko duten komunikazio estrategia eta bitartekoak planifikatu eta abian jartzea, mankomunitate berria sortuko den honetan euskara arloak ikusgarritasuna eta erreferentzialtasuna izan ditzan.
7. Eskualdetik eta eskualderako ezagutza soziolinguistikoa ekoiztu eta hedatzea, eskualdez gaindiko eragileekin elkarlanean ezagutza soziolinguistikoa osatzen eta garatzen laguntzea, eta etengabeko trebakuntza planifikatu eta egikaritzea.

BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)

4.3) ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERAKO EKINTZAK

Ildo bakoitzaren barrenean hainbat ekimen aurreikusi dira, eta horien barne ekintza zehatzak. Izartxoak daramaten ekintzak parte hartze prozesuan proposatutakoak dira.

1. ildo estrategikoa: Haur eta gaztetxoek sozializazioa (0-16 urte)

1.1 ETXEA	HELBURUA	Familiei baliabideak eskaintzea eta haien euskararekiko motibazioa elikatzea etxe giroan euskararen presentzia ahalik eta handiena izan dadin eta jarrera aktiboa izan dezaten haurrak euskaraz hezteko eta sozializatzeko garaian.
	Ekimena	1.1.1 Familiekin euskararen aldeko sentsibilizazioa landu eta baliabideak eskaini
	Ekintza	1) Haur jaioberrien familientzako materiala banatu (<i>Ongi etorri, jaioberri</i>)
	Ekintza	2) Familiei haurren lehen eskolatze garaiko materiala banatu (<i>Familia eta eskola norabide berean</i>)
	Ekintza	3) Familiei haurren aisialdia euskara izatearen garrantziaren inguruko materiala banatu (<i>Eta eskolatik kanpo, zer?</i>)
	Ekintza	4) Familiei haurren kultur kontsumorako baliabideen berri eman (<i>Euskarazko produktuen katalogoa</i>)
	Ekintza	5) Familiei haurren adin ezberdinetan bidaltzen zaizen materiala berrikusi eta berrargitaratu, mendialdeko euskara zerbitzuekin batera.
	Ekintza *	6) Gurasoentzako hitzaldiak, tailerrak, erakusketak... antolatu, hizkuntza ohituretan eragiteko, haurrak euskaraz heztearen garrantziaz jabetzeko eta eskura dituzten baliabideen berri emateko/heziketa soziolinguistikoa.
	Ekintza	7) Parkeetan eta eskola atarietan gurasoen arteko erabilera areagotzeko jarduerak antolatu.
	Ekintza *	8) Familietan Bortzirietako hizkeraren erabilera sustatzeko baliabideak eskaini (hiztegi txikiak, ohiko erranaldiak...)
1.1 ETXEA	Ekimena	1.1.2 era.eus webgunea elikatu
	Ekintza	9) era.eus webgunea elikatu eta hedatu.

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

1.2 ESKOLA	HELBURUA	Bortzirietako ikastetxeak euskararen arnasgune bihurtzea eta haur guziet, bereziki kanpotik edozein adinetan iristen direnek, euskarazko murgiltze ereduan ikasteko aukera izanen dutela bermatzea.
	Ekimena	1.2.1 H.eus Mahaia koordinatu eta jarraipena egin
	Ekintza	1) Haur jaioberrien familientzako materiala banatu (Ongi etorri, jaioberri)
	Ekintza	2) Familiei haurren lehen eskolatze garaiko materiala banatu (Familia eta eskola norabide berean)
	Ekintza	3) Familiei haurren aisialdia euskara izatearen garrantziaren inguruko materiala banatu (Eta eskolatik kanpo, zer?)
	Ekintza	10) H.eus Mahaia kudeatu
	Ekintza	11) H.eus Mahaiaren 2023-2026 planaren ebaluazioa egin
	Ekintza	12) H.eus Mahaiaren 2026-2029 aldirako plana osatu
	Ekintza	13) H.eus Mahaiaren 2026-2029 planaren ebaluazioa egin
	Ekintza	14) H.eus Mahaiaren 2029-2031 aldirako plana osatu
	Ekintza	15) H.eus Mahaiaren 2029-2031 planaren ebaluazioa egin
	Ekimena	1.2.2 Ikastetxeetan euskararekiko sentsibilizazioa landu eta baliabideak eskaini
	Ekintza	16) Ikastetxeetako hizkuntza irizpideei jarraipena egin eta laguntza eskaini.
	Ekintza	17) Ikastetxeetan UEMAREN Hedatu programa sustatu, sistematizatu eta jarraipena egin
	Ekintza	18) Ikasleei hezkuntza soziolinguistikoa eskaini
	Ekintza *	19) Irakasleei hezkuntza soziolinguistikoa eskaini
	Ekintza *	20) Bortzirietako herri curriculum landu
	Ekintza *	21) Ikastetxeetan bertako hizkera landu (unitate didaktikoak, gidaliburuak, tutorialak...)
	Ekimena	1.2.3 Jatorri anitzeko ikasleen euskalduntzea bermatu
	Ekintza *	22) DBHko A ereduako ikasleekin euskararen ibilbidea indartu (euskaraz ordu gehiago eskaintzeko aukerak aztertu, mentoretzak sustatu...)
	Ekintza *	23) A ereduaren desagertzeko bidea egin
	Ekintza	24) Jatorri anitzeko ikasleei harrera linguistikoa egin
	Ekintza *	25) Jatorri anitzeko familiak D ereduaren bideratzeko kanpaina egin hezkuntzaren maila guzietan. Mezuak hainbat hizkuntzatan helarazi.
	Ekintza*	26) Etorri berriak euren seme-alabek euskara ikastearen onuraz konbentzitu immigrazioko jatorria duten herritarren konplizitatearekin eta euren esperientzia oinarri: euskara ikastea beharrezkoa da integratzeko, nahiz eta adin batekin ailegatu
	Ekintza	27) Ikastetxeetan gurasoak harrera egiteko aktibatu eta aholkularitza eskani. Guraso harreragileen programa abian paratu
	Ekintza	28) Ikastetxeetan hizkuntza harrera planak sustatu eta jarraipena egin

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

1.3 AISIALDIA	HELBURUA	Haur eta gaztetxo guziei, bereziki kanpotik etorritakoei, euskarazko eta kalitatezko aisialdi eskaintza bermatzea
	Ekimena	1.3.1 Haur eta gaztetxoei euskarazko udalekuak eskaini
	Ekintza	29) Udaleku irekiak antolatu
	Ekintza	30) Udaleku irekien zerbitzua esleitzeko prozedura egin
	Ekintza	31) Mugaldeko Udalekuak antolatu
	Ekimena	32) Euskarazko udaleku itxiak sustatu eta horien berri eman
	Ekimena	1.3.2 Jatorri anitzeko haurrei euskarazko aisialdirako eskaintza bermatu
	Ekintza	33) Eskolan euskaraz ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzako indartze saioak antolatu (<i>Solasean</i>)
	Ekintza	34) Solasean programaren zerbitzua esleitzeko prozedura egin
	Ekintza	35) Eskolatik kanpo euskara indartzeko baliabideen berri eman (adibidez, <i>Euskaraz Kilika</i>)
	Ekintza *	36) Egoera zaurgarrian dauden haurrei euskarazko aisialdia bermatzeko bidea egin
	Ekimena	1.3.3 Haur eta gaztetxoen artean euskararekiko sentsibilizazioa landu eta erabilera sustatu
	Ekintza	37) Haur eta gaztetxoei heziketa soziolinguistikoa eskaini eskola eremutik kanpo
	Ekintza	38) Gaztetxo taldeen artean euskararen erabilera sustatzeko programa landu
	Ekintza	39) Haur eta gaztetxoen aisialdi eskaintzarako hizkuntza irizpideak landu eragile ezberdinekin
	Ekimena	1.3.4 Teknikarien sareko Aisialdi Lantaldean parte hartu
	Ekintza	40) Teknikarien sareko Aisialdi Lantaldea kudeatu
	Ekintza	41) Sareko 2025-2028 Aisialdi Proiektuko jarduerak garatu
	Ekintza	42) Sareko 2025-2028 Aisialdi Proiektuaren ebaluazioa egin eta hurrengo proiektua prestatu

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**
2. ildo estrategikoa: Ezagutza/Gaitasuna

2.1 HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	HELBURUA	Euskara ez dakiten herritarrek euskara ikastea eta horretarako baliabideak zein dirulaguntzak eskaintzea, ezagutzaren unibertsalizazioa ipar
	Ekimena	2.1.1 Helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatu eta hiztun berriei aitortza egin
	Ekintza	43) Helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatu iraunkorki eta matrikulazio kanpainen bidez, betiere hiztun berriei aitortza eginez, Baztan-Bidasoko eta gainerako euskara zerbitzuekin elkarlanean
		2.1.2 Euskara ikasteko ikastaroak, baliabideak zein dirulaguntzak eskaini
	Ekintza	44) Xede taldeen araberrako ikastaro bereziak sustatu eta eskaini: etorri berrientzako oinarritzko euskara ikastaroak, oinarritzko ulermena eskuratzerako bideratutakoak, euskalkiaren ingurukoak, hitanoa lantzekoak, eta abar
	Ekintza*	45) Ikastetxeen eta euskaltegiaren arteko koordinazioa indartu gaztetxoek eta gurasoek euskara indartu zein ikasteko
	Ekintza	46) Euskara ikasleei dirulaguntzak eman eta doakotasunaren inguruko mezua etengabe zabaltu
	Ekintza	47) Bortzirietako Euskaltegiarekin elkarlan hitzarmena garatu: koordinatu eta diruz lagundu
2.2 IKASTETIK ERABILTZERAKO JAUZIA	HELBURUA	Euskara ikasleek euskara erabiltzeko urratsa egitea
	Ekimena	2.2.1 Euskara ikasleei euskara erabiltzeko eta hiztun aktibo bilakatzeko aukerak eta bitartekoak eskaini
	Ekintza	49) Solaslaguna egitasmoa eskaini Baztan eta Malerreko euskara zerbitzuekin elkarlanean eta egitasmoaren oihartzuna handitu
	Ekintza	50) Nafarroako euskara zerbitzuekin elkarlanean Elaide webgunea eskaini euskara ikasleei: informazioa, baliabideak, euskarazko ekitaldiak, etab. Webgunea elikatu eta hedatu
	Ekintza	51) Euskara ikasleei euskarazko kultur ekitaldietan zein aisialdi jardueretan parte hartzeko eta euskal prentsa, literatura eta musika kontsumitzeko dirulaguntza eskaini
	Ekimena	2.2.2 Teknikarien sareko Elaide Lantaldean parte hartu
	Ekintza	52) Teknikarien sareko Elaide Lantaldea kudeatu
	Ekintza	53) Sareko 2025-2028 Elaide Proiektuko jarduerak garatu
	Ekintza	54) Sareko 2025-2028 Elaide Proiektuaren ebaluazioa egin eta hurrengo proiektua prestatu

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**
3. ildo estrategikoa: Erabilera/elkarreragina

3.1 TOKIKO ADMINISTRAZIOA	HELBURUA	Tokiko administrazioan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatea, eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea
	Ekimena	3.1.1 Bortzirietako tokiko administrazioetako langileen hizkuntza eskakizunak egokitu eta euskarazko formakuntza bermatu
	Ekintza	55) Bortzirietako langile publikoen hizkuntza eskakizunak zehaztu eta langileen kontratazioan euskararen ezagutza egiaztatu, gainerako euskara zerbitzuekin eta Euskarabidearekin elkarlanean
	Ekintza	56) Hizkuntza eskakizunen txostena berritu
	Ekintza	57) Euskara teknikariak probak egiteko gaitu eta proba ereduak eskuratu zein prestatu
	Ekintza*	58) Kiroldegietako langileen hizkuntza eskakizunak berrikusi eta jarraipena egin
	Ekintza*	59) Udal langile eta hautetsiei euskarazko formakuntza eskaini, UEMArekin elkarlanean
	Ekintza*	60) Zaharren egoitzetako langileen euskalduntze planak diseinatu eta garatu
	Ekimena	3.1.2 Bortzirietako tokiko erakundeetako erabilera planak osatu eta jarraipena egin
	Ekintza	61) Toki entitate eta zerbitzu publikoetako erabilera planak garatu, UEMArekin elkarlanean
	Ekintza	62) Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearen hizkuntza irizpideak zehaztu, erabilera plana diseinatu eta garatu, UEMArekin aholkularitzarekin
	Ekintza*	63) Udal kiroldegietako erabilera planak eta hizkuntza irizpideak landu, eta jarraipena egin.
	Ekimena	3.1.3 Bortzirietako arduradun tekniko eta politikoak ahaldundu
	Ekintza*	64) Arduradun tekniko eta politikoekin heziketa soziolinguistikoa eta hizkuntza irizpideak landu
	Ekimena	3.1.4 Herritarrek euskarazko zerbitzu publikoak izan ditzaten eragin eta udalerrri euskaldunak zaindu
	Ekintza	65) Goragoko administrazio eta zerbitzu publikoetan herritarrek euskarazko zerbitzua izan dezaten eragin, UEMArekin elkarlanean
	Ekintza	66) Osasun zerbitzu publikoak euskaraz izan daitezen eragin
	Ekintza	67) Udalerri euskaldunak zaintzeko neurriak hartu eta hizkuntza eraginaren neurketak egin (ELE), UEMArekin elkarlanean
	Ekintza	68) Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina egin, UEMArekin elkarlanean

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

3.2 ARLO SOZIOEKONOMIKOA	HELBURUA	Arlo sozioekonomikoan euskarazko zerbitzu eskaera eta eskaintza sustatzea eta erabilera areagotzea
	Ekimena	3.2.1 Merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan euskarazko eskaintza eta eskaria sustatu
	Ekintza	69) HEEE: Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan euskarazko zerbitzua sustatu eta herritarren eskaera aktibatu, Baztan-Bidasoko euskara zerbitzuekin eta merkatarien elkarrekin elkarlanean
	Ekintza *	70) Hiztegi tikiak eman merkatariei
	Ekintza *	71) Merkatariei kaleko pantailetarako, webguneetarako eta sare sozialetarako hizkuntza irizpideak eskaini
	Ekintza	72) Etorri berrientzako materiala eskuratu, ikastaroen berri eman eta uler saioak eskaini
	Ekintza	73) Menuak euskaratzeko kanpaina berezia: eskaintza egin eta euskaratzera bidali
	Ekintza	48) Establezimendu berriak irekitzeko hizkuntza baldintza eta gomendioak zehaztu
	Ekintza	74) Establezimenduei dirulaguntzak eskaini: hizkuntza paisaia eta ingurune digitala euskaratzea, Bai Euskarari ziurtagiria, etab
	Ekimena	3.2.2 Industrian eta lantegi pribatuetan euskararen erabilera areagotu
	Ekintza	75) Enpresetan euskaraz lan egiteko eta zerbitzua eskaintzeko sustapen lana egin eta baliabideak eskaini, hainbat eragilarekin elkarlanean eta kanpoko aholkularitza baten laguntzarekin. Herrian eta euskaraz lan (HELAN)
	Ekintza *	76) Diagnostikoa egin sektoreka eta lehentasunak identifikatu
	Ekintza	77) Gaia Baztan-Bidasoa mailan lantzea proposatu
	Ekintza	78) Enpresen foroa antolatu eta kudeatu. Elkarlana bideratu: mankomunitateak, enpresak, sindikatuak, euskaltegia, institutua, udalak, garapen agentzia, Bor-bor, etab.
	Ekintza *	79) Enpresaburu euskaldun erreferenteak identifikatu eta euskaraz aritzen direnak aitortu. Euskararen aldeko konpromisoen onura erakutsi. Lantoki euskaldunak ikusarazi: euskararen alde ari direnak eta ongi funtzionatzen dutenak
	Ekintza	80) Enpresa batzordeetatik eta hitzarmenetan eragin. Lantokietan erabaki kolektiboak sustatu euskararen inguruan
	Ekintza *	81) Enpresetan lehentasunezko neurri gisa honako hauek sustatu: hizkuntza paisaia, langileen kontratazioa eta komunikazioa
	Ekintza *	82) Enpresetan euskara planak bultzatu
	Ekintza	83) <i>Aldahitz</i> hizkuntza ohiturak eraldatzeko egitasmoa bultzatu
	Ekintza *	84) Enpresek erakundeen aldetik dirulaguntza handiagoak izan ditzaten eragin. Euskarabideari eskualderako laguntzak eskatu
	Ekintza	85) Gazteekin kontzientzia landu lan mundura sartzerakoan euskarari eusteko
	Ekimena	3.2.3 Adinekoen zaintza arloa landu: erabiltzaileak sentsibilizatu eta langileei informazioa, baliabideak eta laguntza eskaini, gizarte zerbitzuekin elkarlanean
	Ekintza	86) Etxeko langileen artean euskararen erabilera sustatzeko esperientzia eredugarriak ezagutu
	Ekintza	87) Etorri berrientzako materiala eskuratu, ikastaroen berri eman eta uler saioak eskaini, gizarte zerbitzuekin elkarlanean
	Ekimena	3.2.4 Turismoaren arloko eragileak sentsibilizatu eta Bortzirietara datozen bisitariei euskararen murgiltzeko aukerak eskaini
	Ekintza	88) Bisitariei euskararen berri ematen dieten euskarriak eskaini
	Ekintza	89) Turismo arloko eragileekin hizkuntza irizpideak landu (informazioa ematerakoan, bisita gidatuetan, mota guzietako euskarrietan, sare sozialetan, paisaia linguistikoa...)
	Ekintza	90) Euskara ardatz izanen duten bisita gidatuak antolatu eta euskarriak sortu.



**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

3.3 AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLA	HELBURUA	Aisialdian, kirolean eta kulturen euskarazko eskaintza orokortzea eta arlo hauek euskararen erabilerara erorako gune bilakatzea
	Ekimena	3.3.1 Udalen menpeko euskarazko aisialdi eta kirol eskaintza orokortu eta haur eta gaztetxoek kasuan bermatu
	Ekintza *	91) Udal kiroldegietako eskaintza (Pilates, spinning, igeriketa...) euskaldundu, udal ordezkarien lidearekin.
	Ekimena	3.3.2 Elkarte eta klubak euskarazko aisialdi eta kirol eskaintza orokortu eta haur eta gaztetxoek kasuan bermatu
	Ekintza	92) Mota guztietako elkarrekin hitzarmengintza landu eta hizkuntza irizpideak zehaztu, euskaraz funtziona dezaten, eta aurkezpenak, ekitaldiak, jarduerak, ikastaroak, etab. euskaraz antola ditzaten, (Bor-borrekin elkarlanean eta) aholkularitza baten laguntzarekin
	Ekintza *	93) Futbola euskarazko kirol praktika izanen dela bermatu eta entrenatzaileekin hizkuntza irizpideak landu (pilota eta gainerako kirolak ere aintzat hartu).
	Ekintza	94) Hezitzaile eta entrenatzaileei heziketa soziolinguistikoa eskaini.
	Ekintza *	95) Zaurgarrien diren sektoreen euskarazko aisialdi eta kirol praktika bermatzeko dirulaguntza sistema abian jarri, gizarte zerbitzuekin eta gainerako udal zerbitzuekin elkarlanean (kiroldegi, musika eskola, etab.)
	Ekintza	96) Solaslagun egitasmoaren baitako aisialdi ekintzak herritar guztiei eskaini komunitatea sendotzeko
	Ekimena	3.3.3 Arlo pribatua euskarazko aisialdi eta kirol eskaintza orokortu eta haur eta gaztetxoek kasuan bermatu
	Ekintza	97) Arlo pribatua ari diren kirol eragileen datu basea osatu
	Ekintza	98) Arlo pribatua ari diren kirol monitoreei euskarazko ikastaroak eta trebakuntza eskaini. HEEE baliatu bisitak egiteko.
	Ekimena	3.3.4 Euskararen sorkuntza, transmisioa eta kontsumoa sustatu
	Ekintza	99) Bortzirietako Bertso Eskolaren jarduna sustatu eta babestu
	Ekintza	100) Kultur ekitaldiak antolatu, herriz herriko euskaletzeko egituren eskutik
	Ekintza	101) Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatu: Literatura-Geraldiak
	Ekintza	102) Bertze erakundeek antolatzen dituzten kultur ekitaldietan lagundu (<i>Gora-gora Fest, Uscaldunac garen ezquero...</i>)
3.4 HEDABIDEAK	HELBURUA	Euskarazko tokiko komunikabideak babestea
	Ekimena	3.4.1 Euskarazko tokiko komunikabideak diruz lagundu
	Ekintza	103) Ttipi-ttapa Fundazioarekin dirulaguntza hitzarmena kudeatu
	Ekintza	104) Xorroxin Irratia Kultur Elkartearekin dirulaguntza hitzarmena kudeatu

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

3.5 HIZKUNTZAREN KALITATEA, BERTAKO HIZKERA ETA HITANOAK	HELBURUA	Eremu guzietan kalitatezko euskara erabil dadin bultzatzea, eta Bortzirietako hizkeraren eta hitanoaren erabilera sustatzea
	Ekimena	3.5.1 Euskararen erabilera egokia eta zuzena sustatu
	Ekintza *	105) Euskarriak sortu euskara (ahozkoan nahiz idatzizkoan) modu zuzen eta egokian erabiltzeko oinarriak eskainiz eta egin ohi diren ohiko akatsen berri emanez
	Ekintza	106) Euskarazko testuak orrazteko zerbitzua eskaini
	Ekimena	3.5.2 Bortzirietako hizkeraren erabilera sustatu
	Ekintza *	107) Bortzirietako hizkeraren gaineko formakuntza eskaini
	Ekintza	108) Bortzirietako hizkeraren ezaugarriak biltzen dituen argitalpena egin
	Ekintza *	109) Bertako hizkera ahoz nahiz idatziz erabiltzeko irizpideak osatu eta euskarri ezberdinen bidez zabaltu
	Ekintza	110) Mota guzietako testuak Bortzirietako hizkerara egokitzeko zerbitzua eskaini
	Ekimena	3.5.3 Hitanoaren erabilera sustatu
	Ekintza *	111) Hitanoaren inguruko formakuntza eskaini
	Ekintza *	112) Hitanoaren erabilera sustatzeko jarduerak eta ekimenak antolatu
	Ekintza	113) Euskal Herriko III. Hika Topaketa antolatu

BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)

4. ildo estrategikoa: Jarrerak/Motibazioak

4.1 AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA	HELBURUA	Herritarrak euskararekiko sentsibilizatzea eta ahalik eta egoera gehienetan euskara erabiltzeko ahalduntzea eta aktibatzea
	Ekimena	4.1.1 Herritarrak euskararekiko sentsibilizatu eta kontzientziatu
	Ekintza	114) Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, kanpaina eta mezu instituzionala zabaldu
	Ekintza *	115) Euskararen azken urteotako biziberritze prozesua balioan jarri, aitzinetik egindako grabazioak eta dokumentala oinarri hartuta
	Ekintza *	116) Euskalgintzan dabilen pertsona eta kolektiboek aitortza egin
	Ekintza	117) Hizkuntza gutituekin lan egiten duten erakunde eta pertsonen lana sustatu (Garabide)
	Ekintza *	118) Euskaraz ez dakiten herritarrak sentsibilizatzeko euskarriak sortu (euskara zer den, zer-bait galtzen ari diren sentimenduan sakondu...)
	Ekintza	119) Korrika sustatu
	Ekintza *	120) Gazteen elkarte eta kolektiboekin lanketa egin talde horien ardatz eta balio nagusietan euskara egon dadin
	Ekimena	4.1.2 Euskal hiztunak ahaldundu eta euskara erabiltzeko jokabideak sendotu
	Ekintza *	121) Herritar eta kolektiboek heziketa soziolinguistikoa eskaini (euskararen egoera, hizkuntza sozializazioaren ikuspegia, euskararen biziberritzea, euskara mundu globalizatuan, euskara defendatzeko arrazoibideak...)
	Ekintza *	122) Euskal hiztunak ahalduntzeko kanpaina egin (hizkuntza komunitatearen indarra, euskara zer den, transmisioa, harrotasuna...)
	Ekintza *	123) Lehenbiziko hitza euskaraz egiteko kanpaina egin, jokaera eredugarrietan eta kasu errealetan oinarrituta.
	Ekintza	124) Kolektibo eta lagun taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesuak martxan jarri, elkarrikeria elebidunen dinamika txertatuta
	Ekintza *	125) Euskalgintzaren eta herrigintzaren egoeraz eta etorkizunaz gogoeta egin
	Ekintza	126) Euskaraldiaren antolaketan parte hartu
	Ekimena	4.1.3 Arnasguneak zaindu
	Ekintza	127) Arnasguneek buruzko tailerrak eta saioak antolatu
	Ekintza	128) Arnasguneak zaintzeko kanpainak eta ekimenak sustatu (<i>Arnasa gara, Arnasetik...</i>), UEMAren elkarlanean

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

4.2 HARRERA LINGUISTIKOA ETA ANIZTASUNA	HELBURUA	Bortzirietan etorri berrien eta immigrazioko jatorria duten herritarren integrazio linguisiko eta kulturala laguntzea, euskararen bizitasunari eutsita, eta hizkuntza eta kultura aniztasuna ardatz dituen integrazio inklusibo eta harmoniatsua ipar
	Ekimena	4.2.1 Etorri berriei harrera linguistikoa egin eta informazioa eta baliabideak eskaini, herritar eta eragileekin elkarlanean
	Ekintza	129) Migrazio, harrera, integrazio, arrazakeria gaiei buruzko azterketa eskatu aholkularitza bati: abian ditugun egitasmoen eta zabaltzen ditugun mezuen egokitasunaren inguruan
	Ekintza*	130) Harreraguneetan euskararen inguruko informazioa eta baliabideen berri eman: errol-datze garaian, ikastetxeetan, gizarte zerbitzuetan, etab. Idatzizko euskarriak eta ikus-entzunezkoak erabili, hainbat hizkuntzatan (xede taldeetara ailegatzeko informazioa egokitu eta eskuaragarri paratu, gaztelaniaz eta bertze hizkuntzetan)
	Ekintza*	131) Udal langile, gizarte langile eta ikastetxeetako zuzendariekin elkarlanean etorri berriei informazioa eta baliabideak eskuratzeko modua adostu
	Ekintza	132) Zaintza eta zerbitzuen arloan eragin: materiala eskuratu, ikastaroen berri eman eta uler saioak eskaini, ostalari eta gizarte zerbitzuekin elkarlanean (Ikus 44 ekintza)
	Ekintza	133) Harrera saioak egin udaletan eragileekin elkarlanean, eta immigrazioko jatorria duten herritarren parte hartzearekin
	Ekintza*	134) Harrera saioen osagarri herrian barrena bisita gidatuak antolatu, hizkuntza paisaiari aparteko arreta paratuta (zerbitzuak, etxeen izenak, etab.)
	Ekintza	135) Harrera egiteko prest dauden herritarren zerrenda sortu (mentoreak) eta etorri berriei baliabideak eskaini
	Ekintza	136) Ekitaldietan aldibereko itzulpena egiteko herritar boluntarioen zerrenda osatu
	Ekimena	4.2.2 Immigrazioko jatorria duten herritarren integrazio inklusibo eta harmoniatsua lagundu, herritarrak sentsibilizatu eta elkarguneak sortu, euskara eta hizkuntza zein kultura aniztasuna harrotasun eta kohesio iturritzat hartuta
	Ekintza*	137) Sustraiak kanpoan izaki Bortzirietan denbora daramaten herritarrak euskara ikastera eta ekitaldietan parte hartzera animatu
	Ekintza*	138) Jatorri ezberdinetako herritarrekin bildu lanketa berezituak egiteko
	Ekintza*	139) Solaslagun egitasmoaren barne harrera bikote edo taldeak sortu, elkartrukeko (ohiturak, kultur erreferenteak, ospakizunak, tokiak, etab.) eta maila apalean euskara praktikatzeko
	Ekintza*	140) Etorri berriak Korrikara gonbidatu eta korrikaren berri hainbat hizkuntzatan eman
	Ekintza*	141) Aniztasunaren inguruan topaketak antolatu komunitateekin
	Ekintza	142) Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, topaketak, kultur elkartrukeak, bestak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, trebakuntzak etab. antolatu
	Ekintza	143) Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasun taldea dinamizatu berdintasun zerbitzuekin elkarlanean eta migratzaileen harrera zein integrazioa helburu sortzen diren dinamike-ta parte hartu euskararen zehar lerrokotasuna azpimarratuta
	Ekintza*	144) Bortzirietan antolatzen diren ekitaldi eta jardueretan estrategia inklusiboak landu migratzaile guztiak ongi etorriak eta lagunduak senti daitezen, gainerako zerbitzu eta eragileekin elkarlanean
	Ekintza*	145) Euskal hiztunen jarrerak etorri berri eta hiztun berriekiko aztertu eta jarrera zein praktika egokiak sustatu. UEMAren <i>Egin nirekin ere euskaraz</i> zabaldu
	Ekintza*	146) Euskara ikasteko zein antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko garraiorako aukerak zein laguntzak eskaini

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

4.3 HIZKUNTZA ESKUBIDEAK	HELBURUA	Hizkuntza eskubideen defentsa egitea eta herritarrei horretarako baliabideak eskaintzea
	Ekimena	4.3.1 Hizkuntza eskubideen berri eman
	Ekintza	147) Sentsibilizazio eta informazio kanpaina antolatu eta zabaltu herritarrei hizkuntza eskubideen berri emateko eta horien urraketen aitzinea nola jokatu jakinarazteko
	Ekimena	4.3.2 Hizkuntza eskubideen urraketen gaineko intzidentziak jaso eta bideratzen lagundu
	Ekintza	148) Hizkuntza eskubideen urraketen erregistroa sortu eta jarraipena egin
	Ekintza	149) Herritar eta eragileei hizkuntza eskubideen urraketen gaineko intzidentziak kudeatzen lagundu

5. ildo estrategikoa: Gobernantza eta antolaketa

5.1 PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	HELBURUA	Plan estrategikoa garatzea eta jarraipen nahiz ebaluazio egokia egitea
	Ekimena	5.1.1 Urtez urteko kudeaketa plana prestatu
	Ekintza	150) Urtez urteko kudeaketa plana prestatu eta proposatu
	Ekintza	151) Euskara zerbitzuaren aurrekontua prestatu eta proposatu
	Ekimena	5.1.2 Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin
	Ekintza	152) Planaren jarraipena egin zerbitzuen mankomunitatearen baitan eratzen den organoan
	Ekintza	153) Urtez urteko kudeaketa planen ebaluazioa eta memoria egin
	Ekintza	154) Plan estrategikoaren ebaluazioa egin
	Ekimena	5.1.3 Hurrengo plan estrategikoa (2032-2037) prestatu
	Ekintza	155) 2031tik aurrerako plana prestatu
	Ekintza	156) Parte hartze prozesua egin
5.2 EUSKARA ZERBITZUAREN EGITURA	HELBURUA	Zerbitzuen mankomunitate berrian euskara zerbitzuaren egitura eta funtzionamendu berria martxan paratzea
	Ekimena	5.2.1 Euskara zerbitzuaren egitura eta funtzionamendua antolatu
	Ekintza	157) Toki aldaketa egin
	Ekintza	158) Mankomunitatearen organoetan parte hartu edo horietarako dokumentazioa prestatu, behar denean
	Ekintza	159) Euskara zerbitzuaren menpeko parte hartze batzordea antolatu eta funtzionamendurako erregelamendua osatu
	Ekimena	5.2.2 Euskara zerbitzuaren menpeko parte hartze batzordea kudeatu
	Ekintza	160) Batzordea osatu
	Ekintza	161) Batzordea kudeatu, antolatu eta dinamizatu
	Ekimena	5.2.3 Mankomunitateko zerbitzu ezberdinen arteko elkarlana sustatu
	Ekintza	162) Elkarlanerako oinarriak landu gainerako zerbitzuekin batera
	Ekintza	163) Berdintasun zerbitzuarekin hasitako elkarlanari jarraipena eman
	Ekintza	164) Udal hauteskundearen ondoren ordezkari berriei euskara zerbitzuaren berri eman

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**

5.3 ELKARLANA	HELBURUA	Tokiko nahiz Euskal Herriko euskalgintzarekin eta eragile ezberdinekin elkarlana sustatzea
	Ekimena	5.3.1 Bortzirietako euskalgintzarekin elkarlanean aritu
	Ekintza	165) Bor-bor mugimenduarekin elkarlanean aritu
	Ekintza *	166) Herriz herriko egiturekin elkarlanean aritu (beharrezkoa bada, egitura horiek sortu)
	Ekimena	5.3.2 Euskara teknikarien sarearekin elkarlanean aritu
	Ekintza	167) Teknikarien sareko bileretan parte hartu
	Ekintza	168) Harremanen eta Komunikazioaren Lantaldean parte hartu eta jarduerak garatu
	Ekintza	169) Proiektuen Lantaldean parte hartu eta jarduerak garatu
	Ekintza	170) 2025-2028 planaren ebaluazioa egin eta hurrengoa diseinatzeko prozesuan parte hartu
	Ekimena	5.3.3 UEMArekin elkarlanean aritu
	Ekintza	171) Herriz herriko jarraipen bileretan parte hartu
	Ekintza	172) Udalerriko planak garatzen lagundu
	Ekimena	5.3.4 Bertzelako eragileekin elkarlanean aritu
	Ekintza	173) Berako hezkuntza foroan parte hartu
	Ekintza	174) Taupa, Korrika, Kontseilua...eta euskalgintzako gainerako eragileekin elkarlanean aritu
	Ekintza	175) Euskalgintzatik harago, biziberritze plana garatzeko beharrezkoak diren eragileekin elkarlanean aritu
5.4 KUDEAKETA	HELBURUA	Euskara zerbitzuaren menpeko administrazio prozedurak kudeatzea eta jarraipena egitea
	Ekimena	5.4.1 Euskalgintzako eragileentzako dirulaguntzak kudeatu
	Ekintza	176) Mankomunitatearen dirulaguntzen plan estrategikoa berritu
	Ekintza	177) Dirulaguntzak kudeatu
	Ekimena	5.4.2 Euskara zerbitzuaren administrazio prozedurak kudeatu
	Ekintza	178) Euskara zerbitzuaren espediente administratiboak kudeatu
	Ekintza	179) Euskara zerbitzuaren artxiboa kudeatu
	Ekimena	5.4.3 Giza baliabideak eta talde teknikoa kudeatu
	Ekintza	180) Laneko gaiak (egutegia, oporrak, baimenak...) kudeatu eta koordinatu
	Ekintza	181) Teknikarien ordezkapenentarako deialdia eta zerrenda kudeatu eta jarraipena egin

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**
6. ildo estrategikoa: Komunikazioa

6.1 ERAKUNDEAREN KOMUNIKAZIOA	HELBURUA	Zerbitzuen mankomunitatearen komunikazio estrategia adostea
	Ekimena	6.1.1 Zerbitzuen mankomunitatearen komunikazio politika finkatu
	Ekintza	182) Mankomunitatearen komunikazio irizpide orokorrak eta zerbitzu bakoitzarenak adostu
6.2 EUSKARA ZERBITZUAREN KOMUNIKAZIOA	HELBURUA	Euskara zerbitzuaren komunikazioa hobetzea
	Ekimena	6.1.2 Euskara zerbitzuaren komunikazio egokirako irizpideak ezarri
	Ekintza	183) Euskara zerbitzuaren komunikazio plana egin
	Ekintza	184) Sare sozialen erabilera egokirako aholkularitza eskatu eta irizpideak ezarri
	Ekintza	185) Euskara zerbitzuaren webgunea elikatu
	Ekintza	186) Informazio buletinak osatu eta hedatu

**BORTZIRIETAN EUSKARA BIZIBERRITZEKO
III. PLAN ESTRATEGIKOA (2026-2031)**
7. ildo estrategikoa: Ikerketa/Sistematizazioa

7.1 IKERKETA SOZIOLINGUISTIKOA	HELBURUA	Bortziritako ikerketa soziolinguistikoa ekoiztu eta hedatzea, eta eskualdez gairik eragileekin elkarlanean ezagutza soziolinguistikoa osatzen eta garatzen laguntzea
	Ekimena	7.1.1 Bortziritako egoera soziolinguistikoa aztertu
	Ekintza	187) Zentsuko datuak jaso eta ustiatu
	Ekintza	188) Kale neurketa egin Soziolinguistika Klusterrarekin eta UEMAekin elkarlanean
	Ekintza	189) Bortziritako ikastetxeetako matrikulazio datuak bildu eta bilakaera aztertu (etorri berrien datuak barne)
	Ekintza	190) Bortziritako euskaltegiko datuak bildu eta bilakaera aztertu
	Ekintza	191) Etorri berriei eta aniztasunari buruzko datuak bildu
	Ekimena	7.1.2 (Bortziritako) egoera soziolinguistikoa zabalkundea eman
	Ekintza	192) Euskararen bilakaera soziolinguistikoa aztertu eta emaitzak sozializatu
	Ekintza	193) Inkesta soziolinguistikoko datuak ustiatu
	Ekintza	194) UEMAekin, gainerako euskara zerbitzuekin eta bertzelako eragileekin ikerketa soziolinguistikoa eta horren hedapenean aitzinera egiteko elkarlanean aritu
	Ekintza	195) Herritarrentzako ezagutza soziolinguistikoa buruzko ikastaro, tailer, saio, hitzaldi etab. antolatu
	Ekintza	196) Pello Apezetxea Zubiri beka antolatu eta zabalkundea eman (ikergaietan gehitu hita-noa, biziberritzea...)
7.2 ETENGABEKO TREBAKUNTZA	HELBURUA	Teknikarien etengabeko formakuntza ziurtatzea
	Ekimena	7.2.1 Etengabeko formakuntza antolatu eta egikaritu
	Ekintza	197) Soziolinguistikari eta hizkuntza plangintzari dagokion trebakuntza jaso
	Ekintza	198) Tresna teknologiko berriei dagokien trebakuntza jaso
	Ekintza	199) Komunikazioari dagokion trebakuntza jaso
	Ekintza	200) Mankomunitatearen zereginetarako sortzen diren beharrei erantzuteko trebakuntza jaso
	Ekintza	201) Zehar Ierroko gaiei dagokien trebakuntza jaso: generoa, aniztasuna, ingurumena, etab.

Planaren behin betiko bertsioa Bortziritako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak onartu du, 2025eko urriaren 29an egindako bileran.

Urrats hori eginik, komunikazio ekintza hauek aurreikusten dira:

- ▶ Plana mankomunitatearen webgunean zintzilikatuko da, plan estrategikoaren atalean (<https://bortziriak.eus/plan-estategikoa/iii-plan-estategikoa/>).
- ▶ Horren inguruko albisteak argitaratuko da webgunean bertan, eta tokiko komunikabideetara prentsa oharra bidaliko da, planaren onarpenaren berri emanez.
- ▶ Parte hartze prozesuan ibilitako partaide guzietan, euskalgintzako eragileei eta bortz udalei planaren onarpenaren berri emanen zaie, baita dokumentua eskuratzeko esteka ere.
- ▶ Mankomunitatearekin elkarlanean aritzen diren ohiko eragileei, bereziki Nafarroako euskara teknikarien sareari eta UEMAri, planaren berri emanen zaie.